

bidegileak



Josune Munitxa (1947-2002)

Egilea:


BEÑAT GAZTELU-URRUTIA

Josune Munitxa Elorrioko Ikastolako andereñoa izan zen. Bere senideen ja-golea izan zen. Ezagutu zituen Ikasto-laren sorrera eta senideen jaiotza, se-nideek eta ikastolak Josune joaten ikusi zuten moduan. Bizitza osoan ja-kin izan zuen leku berean egoten, be-reen alboan, bereak alboan zituela. Nekez uzten du sorterrria sustraiak han dituenak.

Josuneren bizitza istorio bat da. Ipuina izan daitekeena. Benetako ipuina. His-toria bizia. Norberarentzat nahiko lu-ketena batzuk, beste batzuk ez... baina ez ahaztekoa. Ikasgelako haurrei kon-

tatzekoa, seme-alabei oherakoan irakurtze-koa. Euskalgintza berriaren ipuina da Josune-ren bizitza. Garai estuetan gaurkoa urratu zutenena. Urratu zuten guztiena.

Gorputz eta arimadun bizitza da hau, Josu-nek utzi zituen gorputz eta arimarena, bidea urratu duten arima guztiena.



Josune Munitxa (1947-2002)



Josune Muntzaratzeko baserrian



Izeko Miren, Josune, ama Mari besoetan Itziar duela, lehengusina Itziar A. eta haren ama Basile

Funcor ikastetxea

Hirurogeiko hamarkadako Elorrion, gerra osteko ohiko irakaskuntza erlijioso eta erregimenpekoaz gainera, zantzu berritzaile batzuk agertzen hasiak ziren. Esaterako, Misionereta-ko gau-eskola zegoen, baina ikastolaren aurreko mugimendurik aipatzekotan, hori Funcor-en ikastetxea da.

Funcorrek berebiziko garrantzia izan zuen herri euskaldunaren iratzartzeari dagokionez. Andoni Esparzak sortu zuen hogeita hiru urte zituela soldaduskatik itzuli zenean. Kooperatiba bat sortzeko ametsa ekarri zuen, baita lortu ere. Arrasateko kooperatibagintzarekin batera zetorren proiektua zen hau ere, gizartea iraultzeko asmoarekin enpresa eredu berri bat eskaini nahi zuena. Andoni itzal handiko gizona zen, errespetua eta mirespena lortu zituen herrian eta baita herritik



Josune eta lehengusina Itziar A



Josune Muntzaratzeko baserrian Izeko Mirenen besoetan

kanpo ere. Bostehun langileraino izatera iritsi zen Funcor, guztiek berarengan konfiantza itsua zutelarik.

Enpresa bat baino gehiago zen zerabilten asmoa. Euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia zuten proiektu asko babesten zuten, diruz batzuetan, babesa emanda bestetan. Adibidez, Funcorrek ordaintzen zuen Donostian, Zabaleta auzoan, ikastoletako irakasle izango zirenei ikastaroak eskaintzeko zegoen egoitza.

Gizartearekin eskuzabal, ordura arteko inguruko enpresa guztien moldeak hautsi zituzten. Asmo horiekin zebiltzala eratu zuten Funcorreko Ikastetxea. Hasieran, bertako langile eta langileen seme-alabentzako formazioa eskaintzea zen helburua, ondoren kanpoko jendea ere hartzen hasi ziren, unibertsitaterako bekak banatzen, e.a.

Proiektu asko geratu zitzaion Andoniri gaurzatu gabe, ordea. Oteizarekin batera mutikoentzako unibertsitate bat eratzekotan ere izan ziren. Asmo zintzo eta benetakoak ziren horiek guztiak, baina babes ekonomikoa behar zutenak, Funcorrek berak bakarrik aurrera atera ezinekoak. Lankide Aurrezki Kutxak proiektua babesteari utzi zionean etorri zen Funcorren beherakada, ateak itxi behar izan zituen arte.

Ikastolaren sorrera

Funcorren gainbehera agerikoa zelarik, La Milagrosa eta Marianisten Berrio-Otxoa ikastetxeek ere ateak ixteko bidea hartua zuten. Eskola nazionala lekuz urri zebilen, eta nora joan ez zeukatela geratutako ikasleak kokatzeko ikastetxe berri baten beharra sumatzen zen herrian. 1967. urte aldera, Iñigo Agirre buru zela, irakaskuntzara zuzendutako kooperatiba bat sortzeko baimena eskuratu zuen Arrasatetik talde batek.

Bazen, ordea, irakaskuntzak haize berria behar zuela pentsatzen zuenik. Ikastola izena Euskal Herriko txokorik txoko hedatua zen ordurako. Han-hemenka eraikiak ziren gaur eguneko mugimendua osotzen duten zenbait ikastola. Elorriok ere horixe behar zuela



Josune e1971n ikastolako lehenengo ikasleekin

pentsaturik, eratzeko zen kooperatibako batzarretan parte hartzen hasi zen ekintzaile talde abertzale eta euskaldun bat. Proiektu baten eta bestearen artean egonezinak sortu ziren, tentsio-guneak ere bai. Eredu biren arteko aukera zegoen mahai gainean. Asunzionisten batzargela batean izan zuten bilera batean Ikastolazaleak gailendu ziren. Orduantxe jarri zen Elorrioko Ikastolaren lehenengo harria izango zena.

Proiektua gauzatzeko denbora behar izan zen, baina helburua ondo finkatua zuten: euskararen mundutik irakaskuntza aurrerakoia eskaintzea. Batzar ugari behar izan zi-

tuzten proiektua gorpuzteko. Arazoak zenbaitzu: euskararen debekua, baliabide ekonomikoen urritasuna, proiektuaren beraren oinarriak adostea, leku egoki bat atontzea... Gainera, Funcorren esperientzia gazi-gozoak giroa mingosturik utzi zuen herrian. Zenbaiti kostatzen zitzaion kooperatiba izenaz jaio zen proiektu berrian konfiantza eta dirua jartzea.

Irakasleak aurkitzea zen beste arduretako bat, proiektuarekin bat egin eta bultzatzen zion indar berria zuzentzea, alegia. Hatan horretan, Jesus Atxarengana jo zuten laguntasun bila.



Josune eta Angel koadrilan

Jesus Atxaren eskutik

Jesus Atxa aretxabaletarra, gerra piztu zenean Durangoko Jesuitetako 16 urteko ikaslea zen. Gerra luze zihoala ikusirik, Belgikako nobiziatu bidali zuten gurasoek, handik Venezuelara eta ondoren Kolonbiara filologia ikasketak amaitzera. 1942an, jesuita izateari utzita, Venezuelara itzuli zen eta bertan piztu zitzaion euskal kultur lanari lotzeko grina. 1945ean Euskal Herrira itzuli zen berriz, Elorriora hain zuzen, eta 1953an bertan ezkondu Juli Igarzarekin.

Oso pertsona jantzia izanik, euskara eta euskal kulturarekin zerikusia zuten langintza guztietan parte hartzen zuen, esaterako geografia eta historia irakasle izanda Funcorren ikastetxean. 1961ean Bilboko Edili enpresa euskaltzalean hasi zen lanean. Edilitik Ikastolen sorrerari laguntasuna ematen aritu zen Bizkai osoan zehar, aholkuak emanez, euskarazko ipuinak argitaratuz, e.a.

Elorriotik Bilbora autoz egiten zituen joan-etorrietan, Bilbon ikasi eta lan egiten zuen Abadiñoko neska gazte bat izaten zuen bidelagun. Euskalduna eta abertzalea, Elorrioko Ikastolan irakasle izateko aukerako pertsona, Jesusen ustean. Josune Munitxa zuen izena.

Oraindik ere gogoan ditu Bilbora egiten ziztuzten bidaiak, Josuneren omenez 2002ko



Josune

urtarrilean idatzitako bertso sorta batean jasotzen duen moduan:

Josunegandik hari bat daukat
aspaldidanik zintzilik,
hogeitamabost urte baitira
ezagutu ginanetik.
Eguneroko Bilbo bidean
kotxez hartzen nuenetik,
ikastolataz aritzen ginen
amets, zerbait egin nahirik.
Gaur garbi dago Ikastola hontan
dena ez zela izan alferrik.

Haunditzen haunditzen

Josune Munitxa Agirre, 1947ko urtarrilaren 13an jaio zen Abadiñon. Ama Mari Agirre Bazeta, Abadiñoko Agerre baserriko zazpigarrena, zortzi neba-arreben artean. Aita Jon Munitxa Berriozabalgaitia, abertzale eta euskaltzale sutsua, Kirikiño batailoian gudari izandakoa eta preso hartu zutelarik Canfranc-eko geltokia eta trenbidea egiten hiru urtez aritua. Bizirik itzultzea lortu zuen Abadiñora. Marirekin ezkondu eta sei neba-arrebetatik lehena ekarri zuten Josune. Atzetik etorriko ziren Ixiar, Begoña, Jon, Irene eta Josu, azken hau hamasei urteko aldearekin. Abadiñoko Muntsaratz auzoko Sarratu baserrikoak ziren Munitxatarrak.

Txiki txiki txikia
ikusten naiz kalean,
haunditzen haunditzen
hasi naiz haunditzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik

Abadiñoko neska-mutilak lau urterekin eskolaratzen ziren, Bilbotik etortzen ziren maistrekin. Zortzi urterekin Abadiño erdiko Ferialekuko eskolan jarraitzen zituzten ikasketak hamalau urtera bitartean. Gaur egun eskolen eraikin zaharrean, Campos jauregian, etxebizitza berriak egin dituzte baina eraikinaren itxura aldatu gabe, eta Eskola Zahar izenez ezagutzen da oraindik ere Abadiñon.



Josune jaunartzean

Josunek haurren alderako zaletasuna gaztetandik agertu zuen, eguraldi txarra zela-eta Bilboko maistrarik etortzen ez zenean, umezain egitera hurreratzen baitzen haurtxoengana.

Familian laugarrena mutila izanik eta ondoren etorri zirenak gaztetxoagoak, Josunek, Ixiarrek eta Begoñak haurtzaroa eta gaztaroa harreman oso estuan igaro zuten. Eskola ostean pozik baserriratzen ziren hiru ahizpak etxeko zereginetan laguntzera. Irribarre-

tsu gogoratzen ditu oraintxe ere Begoñak arratsalde haiek. Josune oso ondo moldatzen zen baserri lanetan. Asko lagundu zien gurasoei neba-arrebak hazi eta etxea aurrera ateratzen.

Hamalau urterekin Durangora joan behar izaten zuten abadiñarrek, ikasten jarraitu nahi bazuten behintzat. Josuneren aita Jonek, seme-alabek ikasketa oparoa jasotzeko ametsa zeukan. Ametsa baino gehiago, helburu eta asmo sendoa. Josunek, ordea, nahiago izan zuen aitaren ondoan baserria aurrera ateratzen lagundu eta ofizioaren bat ikasi. Jonek atsekabez hartu zuen Josuneren erabakia. Hala ere, neba-arrebetan nagusia izanda

eta baserriko langintzan ausardia handia erakusten zuenez, halaxe onartu zuen.

Bilbora joan-etorriak egiten hasi zen Josune. Aste bitartean jostun ikasi eta Victor jatetxean zerbitzari lanetan aritzen zen, eta asteburuetan Abadiñora itzultzen Abarketeruena jate-txean lan egitera. Bilborako joan-etorri horiek Jesus Atxarekin egiten zituen eta hantxe izan zuten elkar ezagutzeko aukera. Josuneri etxetik zetorkion euskararekiko maitasun banaezina, Jesusen begiko izateko arrazoietakoa bat izan zena hainbaten. Ez da harritzekoa, beraz, 1967an Jesus Atxari Elorrioko Ikastolarako irakasle baten bila ari zirela esan ziotenean, Josune aukerako iruditu izana.



Osaba Jazinto, Begoña gitarrarekin, aita Jon, Izeko Agueda, ama Mari, Jon, Itziar, Josu eta Josune

Teila bako ikastola

Kili-kili bat, kili-kili bi,
milaka ume dantzan;
alfabetatzen, alfabetatzen,
teila bako ikastolan

*S*kastolaren sorreran ekintzaile zirenetako bi, Juan Mari Zubia eta Juan Jose Ugarriza joan ziren Abadiñora, Elorrioko Ikastolako lehenengo irakaslea izango zenaren bila. Beren buruak aurkeztu eta, garaiak eskatzen zuen moduan, Josuneren gurasoei alaba ikastolara lanean etortzeko baimena eskatu zioten. Zelan esan ezetz Jon Munitxak bere alaba ikastola bateko irakasle izateari? Pozik hartu zuten proposamena etxean, eta pozik hartu zuen batez ere



Ikastolako ikasleak 1969ko Euskal Jaian

Josunek, bere bizitzako proiektu garrantzitsuena bidean zela nekez jakingo zuen arren.

Elorrioko ikastolak 1968ko urtarrilaren 12an zabaldu zituen ateak, 1933an zabaldu eta 1937an itxitako beste ikastola haren oinordeko. Hogeita bat urte betetzeko egun baten faltan zegoen Josune eta hirurogei urteko Maritxu donostiarra ziren irakasle. Jose Ramon Urizar sortzaile eta lehenengo gurasoetarikoak gogoratzen du ondo sasoi hura:

Maritxu irakaskuntzan ibilia zen, sasoiko benetako andereñoa. Ondo ezagutzen zuen mundu hori. Ikastola hasi eta gutxira itzuli zen Donostia aldera. Bagenekien ez zela gurean luzaroan egongo eta horregatik jarri genituen hasieratik elkarren ondoan. Josune orduan gaztea zen, hasiberria. Bazen noizbehinka bisitan etortzen zitzaigun inspektore bat. Maritxu lehenagotik ezagutzen zuen eta bistan zen asko miresten zuena. Izan ere, benetan emakume handia zen. Josuneren gorabeheran berbetan ari ginen batean zera esan zidan: gazte hau Maritxuren erdia izatera iristen bada, gauza haundia egingo du! Gizon harek ez du eza-gutu gero nor izan den Josune.

Hasiera gogorra gogoratzen dute lehenengo gurasoek. Lau urte behar izan zituzten egoitza finkoa eskuratzeko. Bitartean, Marianistetan lehenengo, Otsa jauregian gero, San Juan kaleko Funcorreko ikastetxearen geletan ondoren... aterpe bat baino gehiago bilatu behar izan zuten. Lagun Toki txokoan ere izan ziren bi egunez, Jose Ramonek berak gogoratzen duen moduan.

Horra Lagun Tokik Elorrion bete duen hutsunearen adierazle bat. Jan-edan egiteko leku bat baino gehiago, kulturgune, batzartoki eta Ikastolaren aterpe izatera ere iritsi baitzen.



Josune Galderrekin



Josune eta Itziar (atzean) 1971n ikastolako lehenengo ikasleekin



Josune eta ama Mari Muntsaratzeko baserrian, Galder begira dutela

Ikastolaren txokorik txokorako ibilbide hori gogoz hartu zuen Josunek. 1969. urtean Ixiar ahizpa bildu zitzaion lanera. Bi urtez Ingalaterran izan ostean etxera itzuli eta Josuneren ondoan ikastolako irakasle hasi zen bera ere. Ahizpa bien artean etxebizitza bat alokatu zuten Elorrioko Erreka kalean. Goizero egiten zuten Elorriorako bidaia, ikastolan lana amaitu eta arratsaldetan, batak jostun eta besteak ingelesezko ikastaroak ematen zituztelarik. Gauetan Abadiñora itzultzen ziren arren, pare bat urtez izan zuten alokatuta

etxebizitza hura, bigarren bizibiderako egoitza eta gauaren ihesean zetozenen gordeleku ere izan zena. 1971. urtean Ixiarrek Durango-ko ikastolarako bidea hartu zuen eta Josunek bakarrik jarraitu zuen etorkizuneko bidea.

Lau urteko joan-etorrien ostean, 1972an Marianisten egoitza izandako Txintxirri jau-regia eskuratu zuen Ikastolak. Behar ziren abal eta diruak jarrita gaur eguneko egoitza erostea lortu zuen kooperatibak 1973an. Aro berri baten ateetan zeuden.

Ezkontza

Josunerentzat berebiziko garrantzia izango zuten urteak izango ziren ordutik aurrerakoak. Egoitza berriak gorputza eta egonkortasuna eman zion lau urtez ibiltaria izan zenari. Baina ez zen Josunek esku artean zuen amets bakarra. 1972ko uztailaren 26an ezkondu zen Angel Gaztelu-Urrutiarekin.

Angel ere abadiñarra zen, Traña-Etxoste baserrikoa. Ama, Deogracias Sarrionandiaibarra Irigoien, Durangoko bonbardaketan italiarrren hegazkinek umezurtz utzitakoa, eta aita Jose Gaztelu-Urrutia Arabiourrutia, Gaztelu-

ko Aistigane baserrikoa. Angel ere 1947an jaio zen. Hiru anaien artean zaharrena bera, Durangoko Maristetan egin zituen delinea-tzaile ikasketak. Ekintzaile abertzale garbia, gaztetatik ezagutu zituen diktaduraren lazta-nak. 1968an, Gerediaga auzoko San Salbado-re jaien inguruan, Leon Lizundia Abadiñoako alkate frankistarekin izandako istiluetatik eratorritako gertakari batzuegatik Basauri-ra kartzelaratu zuten, Jesus Mari Zubero eta Juan Luis Bizkarrarekin batera. Hiru hilabete inguru eginda utzi zituzten libre. 1969an soldaduskarako deia etorri zitzaion, Ferrolera hain zuzen. Bertan zela, ETAko Biltzar Ttipia-



Josune, ama Mari, aita Jon eta seme biak, Beñat eta Galder



Josune eta Angel

ren inguruko sarekada batean bere izena azaldu zen nonbait eta Basurtoko Garellano koartelera eraman zuten preso.

Bederatzi hilabeteren buruan epaiketa egin eta zortzi hilabeteko zigorra jasota aske utzi zuten, hilabete zorretan ziotela. Ordainetan, Sahara aldera bidali zuten falta zitzaion soldaduska aldia betetzera. Soldaduska amaituta etxera itzuli, Josunerekin ezkondu eta Abadiñoako Traña-Barren 4.ean hartu zuten etxebizitza.

Seme bi ekarri zituzten, 1974an Galder eta 1976an Beñat, Josuneren bizitza zeharo bete zutenak. Elorriora ikastolaratu zituzten biak. Galderren ikasgela izan zen hain zuzen urte birekin eskolaratutako umeen lehenengo belaunaldia. Amaren ondoan egiten zuten goi-

zero bidea Seat 127 orlegi batean. Urte neketsuak eta erantzukizun handikoak izan ziren Josunerentzat. Seme bi hazteko eta ikastola bera ere hazten. Bata nola bestea, egun osoa eskatzen zioten zereginak, hogeita lau orduko langintza neketsua.

Seme biak koskonduta, 1979an irakasle titulua ateratzeari ekin zion. Egunari ordurik ezin atera eta gauari lapurtu behar izan zizkion. Galder eta Beñat aitarekin edo aitita-amamekin utzita, Eskoriatzako magisteritzako gau-eskolan ikasten hasi zen. Bertan irabazi zuen ikaskideen artean *Bidebatez* gaitzizena, bide batez bazter guztietara heltzeko astia ateratzen zuela-eta. 1982an amaitu zituen ikasketok eta irakasle titulua eskuratu, lehenagotik ere ondo irabazia zeukana.

Bertsolaritza ikastolan

Aitonen hizkuntz zaharra
nahi degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu...

Esuskal kulturarekin konpromiso zinezkoa hartutako emakumea zen Josune. Ikastolan bertan ere, ekintza osagarriak abian jartzeko orduan aurrean ibiltzen zen. 1983an Bizkaiko ikastetxeetan bertsolaritza lantzen hasi zen Jon Lopategi, gaur esker onez aitor-tzen zaion lan emankorra. Bizkaiko bertsolaritzaren berpizkundean berebiziko garrantzia izan du gazteekin egin zuen eta egiten jarraitzen duen



Ekainero ospatzen den Txintxirri ikastolaren ospakizunean partaide

lanak. Zeregin horretan Josune ere izan zuen bidelagun, bidegile bi bata bestearen ondoan, Jon Lopategik berak bere memorieta aitor-tzen duen moduan:

1983-1984 ikasturtean hasi nintzan ikastetxez-ikastetxe bertsolaritza ume eta gaztetxuengana eroaten, Bizkaiko Ikastolen Federazioaren eskutik.

Ateak zabaltzen zeusteezan ikastola eta ikastetxe guztietara neu zuzenean heltzea



Jon Lopategi, 1982ko Getxoko ibilaldian ospatu zen Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, bertsolari gazteekin

ezinezkoa zanez, euskera klaseen barruan bere emon zegikean irakasleren bat gaiaren arduradun izendatzea eskatzen neuan, neure eta bertsolaritza jaso behar zeuen umeen artean zubi lana egingo zeukeana.

Erantzun ezinhobea aurkitu neuan ikastole-tan eta mugimendura batu nituan beste ikastetxe gutzietan.

Gauzak horrela, ahal neuan ikastoletara zuzenean heltzeaz ganera, arratsaldeetan, ikastorduz kanpo, eskualdez eskualde aste-ko bost batzar antolatzen hasi nintzan ikastetxe ezberdinetako arduradunekin. Hamabost-hogei irakasle arduradun batzen ziran eskualde bakoitzean. Euren ikaste-txeetako umeekin zelan moldatze ziran al-karrerari adierazoteaz ganera, guztion ar-tean arbel batean, koplak eta bertso ariketa batzuk prestatzen genituan, hurrengo aste-an ume edo gaztetxuekin erabiliko geni-tuanak. Giro alai eta bizian, ordubetetik

ordu ta erdira bitarteko ekintza izaten genduan.

Arduradun eta nire arteko hartu-emonak ekarri zeuskun beste jokabide atsegin bat bere. Orduantxe sortu ziran, lehenengoz, gero ospetsu bihurtuko ziran «Kanpantxukadak». Hiru-lau bat biderrez antolatu genituan irakasle arduradunekin, bertso idatzia nahiz bapatekoa zelan landu esperimentatzeko. 35-40 irakasle batzen ziran, jende alai eta bertsolaritzaz zaletua, edozein ariketatan parte hartzeko gertu zegoana. Gomutapen atseginak itzi zeustazan ekintza honek.

Baina, lanbide honetan hasi eta hiru bat hila-betetara heldu jatan ekintza garrantzitsue-nari edo konprometituenari heltzeko unea.

Ikastolen Federazioko Zuzendaritza Ba-tzordeko bazkideetako batek, euren batzar baten ostean, zera jaurti zeustan: «A ver si tú también preparas una txapelketa como la



Josune, Irene eta Jon neba-arreben ondoan, Galder semea eta Kimetz loba besoetan dituztela

que organizan los guipuzcoanos para Ibilaldia que vamos a celebrar en Getxo».

Berbeari heldu eta 1984ko urte barrietarako neure ordutegia egokitu eta ikasle nagusitxuenekin ikastetxe mailako bertso-eskolatuak antolatzeari ekin neutson. Eta lortu bere lortu neuan han-hemen zortziren bat taldetxu martxan ipintzea. Eskualdeko bakoitzeko bat, gutxienez, Ezkerraldea barru. Hala lortu genduan Padurako Ibilaldiaren barruan ikastola guztietako ume ordezkarien euren aduradunekin kopla kantari agertzeaz ganera, bapateko bertsogintzan lehenengo Bizkaiko bertso-txapelketea ospatzea eta 14 neska-mutikok bapateko ariketetan parte hartzea.

Eskualdez eskualde, ikastetxez ikastetxe eta talderik talde, asteko 32 ordu emotera iritsi nintzan lehenengo ikasturtean; baina merezi izan zeuan ahaleginak. Hurrengo ikasturteetarako oinarri finkoak jartzea lortu genduan eta hortik etorriko ziran gero urteroko 6-7 «Kanpantxukada» ospetsuak eta Bizkaiko nahiz Euskalerrri mailako txapelketetan izan genituan egun arrakastatsuak.

Ekintza guztiok burutzeko, arduradun batzuk eskaintzen zeusten laguntasuna beharrezko baizen estimagarria izan neuan. Izenak emoten hasiko banintz badakit bakarren batena ahaztuko neukeana, laguntzak asko eta era ezbardinetakoak izatean. Izan neuan, oster, ben-benetako arduradun bat, beti estimu handian izan dodana eta merezi adinako esker onik jaso baino lehen joan jakuna. Josune Munitxa da bere izena, Elorrioko



Josune eta Angel, Galder tartean dutela

Ikastolako arduradun zana. Ekintza batzuetan, bere ikastolakoa ezeze, Durangalde guztiko ardurea bereganatzen zeuana. Arduradunen batzarretan, «Kanpantxukadetan», idatzizko txapelketen kanporaketetan eta beste edozelako ekintzatan bera izaten neuan nire esku eskoia. Idazkari, aholkulari, koordinatzaile... edozein lanerako beti prest neukana.

Eta guzti hori ezelako ostentazino barik, naturaltasun miresgarrienean, klandestinitate garaiko andereñoen militante espiritua mantendu guran legez.

Halantxe erantzungo zeutsoen gero etxean bere. Galder eta Beñat jarraian, seme biak helduko jakozan bertsolari maila dotore batera.

Gaur bertoko jazoera balitz legez gogoratzen dot Beñatek umeen mailako Euskalerriko txapela Bizkaira lehenengoz ekarri zeuskuneko. Gernikan zan ospakizuna eta Josuneren ondoan subertatu nintzan Beñatek kantuan



Beñat Gaztelu-Urrutia bertsotan 1990ean



Jon Lopategi Bizkaiko bertsolari gazteekin bere Muxikako beserrietxean 1991n

ziharduen unean. Berbaz-berba errepikatuko nituke Imanol Lazkanok eta biok bere amari jaso geuntsozan adierazpenak.

Beñatek txapela janztean, Josuneri inork ordaindu ezin geuntson esker oneko sari-rik gozoena bere semearengan jasotzen ari zalako sentimendua izan neuan.

Joan jakunean, neure azken agurra benetako sentimenduz eskaini neutson:

Andereño abertzale,
landare berrien alde...
Andereño abertzale,
geure ikastolen alde...
Txalo eta ohore
gaiatortzuz kantore
lagun, guraso ta ume...
herri osoa Josune.
Txalo eta ohore
gaiatortzuz kantore
lagun, guraso ta ume...
eskerrik asko Josune!

Jakintsua eta zentzuduna

Jon Lopategirekin batera, azken urteetan lankide eta lagun izan zituen ikastolako irakasleak ere oroimenez beterik daude, ikastolaren zutabe garrantzitsu bat galdu izanaren saminez.

Bere gizatasuna aipatzen dute uneoro. Harremanetan jakintsua eta entzuten zekienetarikoa zen. Arazoak konpontzeko dohain berezia zeukan, lankideen eta gurasoen aholkulari izaterainokoa.

Bigarren etxetzat zuen ikastola. Lehenengotzat esatea lartxo litzateke, izan ere bere maitasun eta arima guztia jartzen zuen etxe koentzat eta Abadiñoko Santikurutz tontorrean Angelek eta biek eraiki zuten etxea-



Josune, amaginarreba Deo eta aitaginarreba Josereren alboan, Santikurutzeko etxearen eraikuntzan



Josune ikasleekin

rentzat. Baina ikastola eta etxea, biak parean jartzea ere ez litzateke astakeria handia idazten duen honen aldetik. Hiru eta bost urtekoen andereñoa izan zen beti, eta amaren maitasunez hartzen zituen goizero, bai lastan egiteko bai haserre egiteko. Zail zitzaion haien artera bildu gabe egotea. 1986-87 ikasturtean eztarriko arazoak izan zituen, ebakuntzaren bat ere egin behar izan zioten, baina orduan ere ezin joan gabe egon. Mikrofono eta altaboz batekin joaten zen bere umetxoengana.

Aritz Luzar, Josuneren ikasle ohiak berba hauekin berriro dizkigu bere oroitzapenak:

Marino, Sean Kelly, Lucho Herrera, Steven Rooks, Laurent Fignon..., nekez ekartzen ditut oroimenera laurogeigarreneko hamarkada hartan jolaserako generabiltzan garagardo txapetan ageri ziren txirrindularien izenak. Izenok betirako ziruditen orduan,

Josune Santikurutzeko bere etxean ikastolako haurrekin ortua ezagutzen



izan ere, ez genizkion alperrik eman zeinek jakin zenbat buelta futbito zelaiko pikondolari, txapazko idolei atzamar puntekin bultzatza-bultzaka. Nork esan behar zigun guri orduan gure garun-bihotzetan grabatua geratuko zitzaiguna, ikasgelako balkoitik jolasordua bukatu zela ohartarazten zigun ahots urratu hura izango zela. Josune hezur-haragizkoegia, hurbilegia zen idoloa izateko eta maitatu egiten genuen batez ere. Ez dut ikasle ohien batzarrik egin behar izan pluraleko lehenengo pertsonan mintzatze-ko, Josune ezagutzera iristen zen orok hura maitatzea beste erremediorik ez baitzuen.

Garai hartan Ikastolan bizi ginela esan liteke, lau t'erdietan klasetik irten eta jolastokian geratzen baikinaren kaniketan ez bazen tronpan, edo sugelindara bila ostantzean. Baina ez ginen gu hango «biztanle» baka-

rrak, Josune ere ez zen urrun ibiliko ahatei jaten eman edo loreak ureztatzen. Josune gure egunerokoaren zati banaezina bihurtu zen, gu ere bere pelikularen protagonistak sentitzen ginen neurrian. Gu berarentzat ez ginen ikasleak edo lanerako gai soilak, gutariko edonork arazoren bat zue-
nean bere egiten zuen. Harritzekoa zen gure Ikastolako aroa amaitu eta urteetara zeinen ondo ezagutzen gintuen ikustea: zerk trabatzen gintuen, zertan ginen trebeak, zer izan nahi genuen «haunditan», lotsatiak edo lotsabakoak ginen, gaisotasunen historiala ere bai deskuidatuz gero.

Erratzeko beldurrik gabe, Josunek «egin» gintuela esaten dut, edo egin baino egiten lagundu, gutariko bakoitzaren izaieran eta balioetan Josunerena baitaude. Inork ez baitzion andereño deitzen, Josune baino.

Langintzan berritzailea

Kilometro bat oinez
ibiltzen ibiltzen
kilometro bat oinez
zapatak puskatzen

Bere langintzan berritzailea zen. Ideia berrien aurrean jarrera zabala eta ausarta azaltzen zuen, ezagutzaz harago, irakaskuntza hezitzailearen alde egiten baitzuen. Gaur egunean ohikoak diren Bernard Aucouturier-en psikomotrizitate mota, edo negutegia, permakultura, zein oilategia bezalako ekimenak abiarazi

zituen. Naturarekin etengabeko harremanean, naturaren beraren behaketa ikasketa bihurtzen saiatzen zen. Noizbehinka bere Santikurutzeko etxera eramaten zituen ikasleak oilo, ardi, zaldi, ortu... eta bazterrak ezagutzera.

Durangaldeko ikastetxeen artean egiten den bertso zirkuituaren hazia ere berak erein zuen, bere Ranger Roverrean zazpi ikasle hartu eta egun osoan ikastetxez ikastetxe bertso kantari atera zituenean.

1988an Ikastolako zuzendaritza hartu zuen bi urterako. Sasoi horretantxe hartu zuten Batxilergoa jartzeko erabakia, derrigorrezko



Josune Ikastolako negutegian ikasleekin



Josune ikasleekin inauterietan

bigarren hezkuntzaren legearen harira. Erronka garrantzitsuari heldu behar izan zioten, baina argi ikusi zuen etorkizunera begira ezinbestez eman beharreko pausua zela. 1990eko irailean hasi zuten lehenengo ikasturtea hamasei ikasleko taldetxoarekin, tartean Beñat, bere seme gazteena zela.

Aparta zen ikastolaren onerako proiektuak bideratzen. Ikasleentzat onena nahi zuen, ez zen apurrekin konformatzen. Ekintza osagarriei garrantzi handia ematen zien, batez ere kulturarekin eta, bereziki, inguruko kulturarekin zerikusia zutenean. Eguen Zuri eta Santa Ageda egunetako eskean batzuetan, txorokil batzen bestetan. Behin bere ama

Mari ekarri zuen ikastolara San Blas opilak eta taloak egiten irakastera.

Ahalegin berezia egin zuen antzinako ohiturak ezagutarazteko. Elorrio eta Atxondoko zaharrenei grabaketak egiten aritu zen ibilaldi mitologiko bat burutzeko asmoarekin. Edo Elorrioko kanpajoleen kontzertua antolatzen.

Beste behin, Durangaldeko hainbat ikastetxetako lauhun umetik gora bildu zituen Elorrioko plazan dantza-erakustaldi gogoangarri batean dantzari.

Josunek irakaskuntza ulertzeko zeukan modua osatzen duten ekintza txikiak dira horiek guztiak.



Ikastolako haurrak



Josune 1999an Elorrioko plazan antolaturiko hurren dantza jaialdia

Garai lanpetuak, baina ilusioz beteriko garai politak izan ziren ordura artekoak. 1993-1995. urteak eta ondorengoak, ordea, ez ziren hain politak izan. Euskal Herrian zenbait ikastola publikatu ziren urte horietan. Elorrion bertan ere haustura nabarmena gertatu zen. Ikastolarekiko ikusiezin ulergaitzak bultzaturik, erasoaldi beldurgarriak burutu zituzten alde batetik eta bestetik, ikasle erdiekin utzi zuten arte. Proiektuaren bideragarritasuna bera ere kolokan izan zen denbora luze batez.

Josune sorrerako andereñoa zen, urteetako ibilbide osoa ezagutzen zuena, eta hein handi batean lankide eta gurasoen ikur. Berez zen eragilea, eta gatazka honetan bereziki eragin-

garri. Irakasle eta guraso talde batek, egoera pertsonala albo batera utzita, proiektuari eustea erabaki zuen. Josunek berak zama handia hartu zuen auzi horretan, Santikurutzeko etxea zenbait batzarretarako gotorleku bihurtu zuelarik.

Berrian-berri hastea bezalakoa zela esaten zuen berak, baina urteetako jakintzarekin. Goian zerua eta behean lurra, proiektua berrantolatzeari ekin zioten. Ikasgelak ikasturteka barik, zikloka batzea izan zen lehenengo pausoa. Horra neurri bat derrigorrezkoa bezain berritzailea, gerora ekarri dituen fruituak ikusita. 0-3 urte bitarteko haurtzaindegia jartzeari etorri zen ondoren eta, beranduago, 1999an, Ibilaldia heldu zen Elorriora.



Txintxirri ikastolako 1998-99 ikartuteko irakasle taldea

Ikastolaren bideragarritasuna bermaturik, jai ederra izan zuten hurreratu zirenek. Josunek eta Jesus Atxak moztu zuten ibilbideko kordoa. Hogeita hamaika urteko historia bizia lau eskuen artean.

Aurtengo urte honetan 2006ko Ibilaldia berriro etorri da Elorriora. Josunek muturreraino defendaturiko proiektua bizi-bizirik dago. Irribarretsu. Berak nahiko lukeen moduan.

Harriduraz galdetzen dute Josune ezagutu zutenek nondik ateratzen zituen indarrak. Bistan da azken unerako guztiak agortu zituela. Langile fina zen Josune, sarritan bere indarren gainetik ekiten ziona. Asko maite duenak asko sufritzen du. 2002ko urtarrilaren 28 batean eraman zuen gaixotasun batek, ez bizitzaren alde borrokatu gabe, azken unera arte izan baitzen bereen alboa, bereak alboan zituela.

Ikastolako jolastokian bere omenez jarritako ikur bat dago, ikasle izan zuen Amaia Ugalderen olerki honek zainduta:

Zuhaitz barri bat landatu da ikastolan.

Urte batzuk barru

zuhaitz honen enborra sendoa izango da,
zu bezala.

Haize leuna eta egunsentiko printzak biziko ditu,
momentu onak.

Haize bortitza eta ekaitz zakarrak jasango ditu,
baina beti aurrera.

Zure babes eta maitasunean

gure sustraiak jaiotzen ikusi genituen,
eta lur onean hazi ginen.

Gure oroimenean izango zara beti.

Eskerrik asko, bixotza.



Josuneren oroimenezko
ikurraren inguruan haurrak
olgetan ikastolako jolastokian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Gaztelu-Urrutia familiari
- Munitxa familiari
- Txintxirri ikastolako irakasle eta langileei
- Jose Ramon Urizarri
- Mari Asun Barandiarani
- Juan Mari Zubiari
- Jon Lopategiri
- Aritz Luzarri
- Luis Berrizbeitiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2449-5 (Lan osoarena)
84-457-2453-3

L.G.: BI - 1849-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística